



2. IBILBIDE MITOLOGIKOA

ALTUERA MIN.:	263 m.
ALTUERA MAX.:	814 m.
DESNIBELA:	▼ 561 m. ▲ 543 m.
DISTANTZIA:	8,35 km.
DENBORA:	3 ordu
ZAILTASUNA:	erreza


2. BERRENOA

SORGINEN AZTARNAK JARRAITUZ



2. BERRENOA

➤➤ ATXURRENEKO ZUBIA ~ BERRENOA LEPOA ~ ATXURRENEKO ZUBIA



Aparkalekua	Zubia	Bidegurutzea	Trikuharria	
Hasiera puntua	Borda	Lepoa	Amaiera	



▶ TOPOGIDA

P. **Aparkalekua.** Ergoienako plazan utzi beharko dugu autoa, eta errepidea Nafarroa alderantz jarraitu, Atxurrenara heltzeko, hemen ez baita autoentzat lekurik.

1. **Hasiera-puntua.** Atxurreneko zubian hasiko dugu ibilbidea, zubi hau igaro eta ezkerrean erreka ondotik doan bidea jarraitzeko. ◀) ENTZUN: 1. Atxurrene.

2. **Ezkerreara.** Belardia alboan dugula ezkerreara egiten duen bidezidorra jarraituko dugu, pinudia igaroz Mandaibietan ateratzeko.

3. **Mandaibietako zubia.** Hau ezkerrean dugula aurrera jarraitu. Gora egitean hesi bat igaro eta borda berriztatu baten parera irtengo gara. ◀) ENTZUN: 2. Dantzaleku (Mandaibietan).

4. **PR.** Borda eskuin aldean utziz jarraituko dugu aurrera. Hemen elkartzen da bidea Jauregiberri edo Kaxeta bezala ezagunagoa den etxetik datorren PR bide seinalezatuarekin. Hemendik aurrera arrastoak jarraituko ditugu.

5. **Borda.** Borda eskuinean utziz ezkerreko bidea hartu gaztainondo galantean dauden arrastoei jarraika.

6. **Berrenoa.** Berrenoako lepoan dagoen zabala "Dantzaleku" izenez ezagutzen da, ekainaren 29an San Pedro ermitan (Urdiain-Altsasu) ospatzen zen erromerian izandako gazteek galtzadan itzultzean bertan dantza egiten zutelako. Heldu da ibilbidea bere helmugara. Gune honetan atseden hartu eta galtzada eta trikuharria ikusi ondoren beheko bidea hartu beharko dugu. Igoerako bide bera jarraituko dugu harik eta PR arrastoak jarraitzeari ekin diogun puntura heldu arte. ◀) ENTZUN: 3. Dantzaleku (Berrenoa). ◀) ENTZUN: 4. Berrenoako trikuharria.

=4. **PR.** Ezkerreara hartu eta borda aurretik igaroz eskuinaldera doan bidean behera egingo dugu.

7. **Eskuinera.** Eskuinean behera doan bidea jarraituko dugu Atxurreneraino bidea deseginez.

=1. **Amaiera-puntua.** Atxurreneko zubian amaituko dugu berriro ibilbidea.

GUNE INTERESGARRIAK



BERRENOAKO GALTZADA

Erdi Aroan egindako harri bidea, XIX. Mendean Lizarrustitik igarotzen den errepidea egin arte Ataungo bide nagusi izan zena. Oraindik bistan da Berrenoa inguruan galtzada eder hau.



BERRENOAKO TRIKUHARRIA

Trikuharria izen bereko lepoa zeharkatzen duen galtzadaren ondoan dago. Tumuluak hamabi metro inguruko diametroa zuen. Estalkirik gabeko ganbera soila du, lau harlauzek eratutako esparru laukizuzenak osatua. Mendebaldeko harlauzan gurutze landu bat du, hau Joxemiel Barandiaranek kristautasunarekin lotu zuelarik. Bertan eginiko aurkikuntzen artean, gezi-punta bat, bi ijeki eta kuartzo-kristal zati bat (kuttun moduan erabiltzen zena) aurkitu ziren.